



GGA AZTERKETETARA JOATEKO JARRAIBIDEAK

GGA azterketetako **2. deialdiko** azterketa, hasiera batean, 2020ko martxoaren 27an egitekoa zen, 10:00etan, UNEDen Gasteizko egoitzan, eta COVID-19aren pandemia zela-eta atzeratu zen Mugikortasun eta Garraio zuzendariaren martxoaren 13ko 673/2020 Ebazpenaren bidez. Bada, azterketa hori **data eta toki hauetan** egingo da:

SALGAIK ETA SALGAIEN SUSTAPENA:

EKAINAK 19, ostirala, 12:00etatik 14:00etara.
Arabako Foru Aldundiaren **LA BLANCA** eraikinean.
Probintzia plaza, 4 – behea (barnealdea)

BIDAIARIAK ETA BIDAIARIEN SUSTAPENA:

EKAINAK 22, astelehena, 12:00etatik 14:00etara.
Arabako Foru Aldundiaren **LA BLANCA** eraikinean.
Probintzia plaza, 4 – behea (barnealdea)

Nola iritsi: La Blanca eraikina Probintzia plazako 4 zenbakian dago.



Aldundiaren bulego teknikoan eta Albareda aterki dendaren artean dagoen igarobidetik sartu behar zara. Ezkerraldean, segurtasun garita bat ikusiko duzu, eta han identifikatu beharko zara.



NAHITAEZ BETE BEHARREKO ARAUAK, AZTERKETA EGITERA JOAN AHAL IZATEKO

(2020/06/04an indarrean dauden osasun aginduen arabera eginak)

- 1) **Maskara jantzita izan behar da nahitaez** azterketa egin bitartean. Hori betetzen ez bada, **EZ DA UTZIKO** azterketara sartzen.
- 2) Baldin gelara sartzeko unean edo proba egin bitartean ikusten bada izangairen batek koronabirusarekin **bateragarriak diren sintomak** dituela, erabaki ahal izango da **azterketa egitera sartzen ez uztea edo gelatik irtenaraztea**. Gomendagarria da proba egitera joan aurretik tenperatura hartzea, eta 37 gradutik gora izanez gero, etxean geratzea.
- 3) Izangai bakoitzak **bere boligrafoa** eraman behar du. Epaimahaiak ez du materialik emango.
- 4) Sarreran, izangaiek **gel hidroalkoholikoa** izango dute. Eseri aurretik, eskuak garbitu beharko dituzte.
- 5) Azterketa egin ahal izateko, nahitaez eraman behar da **indarreko** NANA, AIZ edo antzeko identifikazio agiria eta, beharrezkoa bada, **berritzeko** eskaera eginda duela **egiaztatzeko** agiria.
- 6) Baldin izena emanda duen pertsonaren batek koronabirusarekin bateragarriak diren **sintomak** baditu, **berrogeialdian** badago edo **COVID-19a diagnostikatu** badiote, epaimahaiari jakinaraz diezaioke azterketa hasi baino **ordubete lehenagora arte**, **cap@araba.eus** helbidera mezua idatzita edo Garraioa Ikuskatzeko Zerbitzura deituta. Idazki bat bidali beharko du, zer egoeratan dagoen jakinarazteko, eta, idazkiarekin batera, **medikuaren egiaztagiria**. Halako kasuetan, epaimahaiak ahalbidetuko du azterketa beste egun batean egitea, gaixotasunetik sendatu ondoren edo mugitzeko mugak gainditu ondoren, eta ez da deialdia galduko.

GOMENDIOAK

- 1) Gutxienez ordu erdi lehenago joan, La Blanca eraikinera sartzeko kontrol puntutik igaro beharra baitago.
- 2) Pertsona bakoitzak aldeztu aurretik esleituta izango du eserlekua, prestatutako geletan. Dagokion lekuan izango ditu erantzunen orria eta bere datu pertsonalak izango dituen eranskailua.
- 3) Behin eserita, erantzunen orriaren alboan jarri beharko du NANA, AIZ edo identifikazio agiria, zainzaileek **ikusteko moduan**.